



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoak 12

Vitoria-Gasteiz, 12 de marzo de 2024

Segurtasuna

GOBERNU KONTSEILUAK EUSKALMET – EUSKAL METEOROLOGIA AGENTZIA SA SORTZEKO ONIRITZIA EMAN DU

- Forma juridikoa aldatzeak ez du eraginik ez bere eginkizunetan ez bertako langileetan; izan ere, egungo langile guztiak integratuko dira sozietate anonimo publiko berrian, eta Jose Antonio Aranda Eusko Jaurlaritzako Meteorologia Zerbitzuaren egungo buruak zuzenduko du
- Euskalmet SA euskal administrazioko bitarteko propio pertsonifikatua izango da aurrerantzean, eta, horri esker, meteorologia txarretik eta klima-aldaketatik eratorritako etorkizuneko erronkei berme osoz aurre egin ahal izango zaie

Gobernu Kontseiluak Euskalmet – Euskal Meteorologia Agentzia SA sortzeko oniritzia eman du. Era berean, euskal sektore publikoko erakundeak sortzeko araudiak ezartzen duenari jarraituz, gaur eman zaie oniritzia sozietatearen estatutu sozialei, sortu berria den sozietateari aplikatu beharreko xedapenei, hasierako jarduketa-planari eta abarri. Gainera, hemendik aurrera, Euskalmet SA sozietate anonimo publikoa izango da, eta sektore publikoa osatzen duten erakundeen “bitarteko propio pertsonifikatua” izango da.

Forma juridikoa aldatzeak **ez du eraginik ez bere eginkizunetan ez bertako langileetan**; izan ere, egungo langile guztiak integratuko dira sozietate anonimo publiko berrian, eta **Jose Antonio Aranda** Eusko Jaurlaritzako Meteorologia Zerbitzuaren egungo buruak zuzenduko du.

2024ko martxoaren 25ean eratuko da

Euskalmet SA sortzeko Dekretu Proiektuan eta Estatutu Proiektuan ezarritakoari jarraituz, erakunde berriak **Zuzendaritza Nagusia** (Eusko Jaurlaritzako Meteorologia Zerbitzuko gaur egungo burua, Jose Antonio Aranda) **Akziodunen Batzar Nagusia** (bazkide bakarra: Gobernu Kontseilua), **Administrazio Kontseilua** (8 kide) eta **Aholku Batzordea** (9 kide) izango ditu.

Administrazio Kontseilua sozietatearen kide anitzeko gobernu-organo gorena da, kontseilu hori **eratzeko bilera martxoaren 25an, astelehenean**, egingo da, eta honako kide hauek izango ditu:

1. Lehendakaria; kargu hori Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburuak beteko du, eta **kalitate-botoa** izango du.
2. Lehendakariordea; kargu hori Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburuordeak beteko du.
3. Eusko Jaurlaritzan ingurumen-jasangarritasunaren arloan eskumena duen Saileko sailburua.
4. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria.

5. Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazioko zuzendaria.
6. Euskal Irrati Telebista (EITB) zuzenbide pribatuko erakunde publikoko zuzendari nagusia.
7. Hitza izango duen baina botorik izango ez duen idazkari bat. Idazkari hori sozietatearen Administrazio Kontseiluak izendatuko du.
8. Sozietatearen zuzendaria izango dena Administrazioa Kontseiluaren bileretara joango da behatzaile gisa, bere kabuz edo ordezkatuta, eta hitza izango du baina botorik ez.

Aholku Batzordeko kide izango dira:

- Hiru bokal; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundietan babes zibilaren arloan eginkizunak betetzen dituzten sailetako bakoitzeko bat.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria.
- *Itelazpi SA* merkataritza-sozietate publikoaren zuzendari nagusia.
- *Eusko Jaurlaritzaren EJIE Informatika Elkarte* – *Sociedad Informática del Gobierno Vasco SA*ren zuzendari nagusia.
- *EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen* ordezkari bat, elkarteak berak izendatua.
- *Fundación Azti* – *Azti Fundazioaren* ordezkari bat, fundazioak berak izendatua.
- *Tecnalia Research & Innovation Fundazioaren* ordezkari bat, fundazioak berak izendatua.

Etorkizuneko erronkak

Ekimen honekin, Eusko Jaurlaritzak berme osoz aurre egin nahi die meteorologia txarretik eta klima-aldaketatik eratorritako etorkizuneko erronkei, larrialdien arretarekin eta kudeaketarekin lotura estua duten alderdiak izanik. Euskalmet SAk meteorologia-zerbitzua erronka berrietara zabaldu nahi du, sail eta erakunde eskudunekin harreman handiagoa eskatzen baitute. Gainera, meteorologiari buruzko informazioa eta horri lotutako abisu, alerta eta alarmen sistema gure gizartean eta haren informazio-kanaletan erabat integratu diren aktiboak dira. Berez, besteak beste, hidrologia, trafikoa, ikuskizunak, ingurumen-kutsadura, ozeanografia, arrantza, nekazaritza, erradiologia, hirigintza, komunikazioa, osasuna eta segurtasuna estuki lotuta daude meteorologiarekin eta klimatologiarekin, eta erantzun berriak behar dituzte, beraz, batez ere balizko larrialdi baten aurrean arriskua prebenitzeko ikuspegitik.

Horregatik guztiagatik, eta Eusko Jaurlaritzak bere tresna eta baliabide propioak izan ditzan Euskadiko meteorologiaren zaintza-, informazio- eta ezagutza-lanetarako behar den eguneroko operatiba bere bitartekoekin emateko, funtsezkoa da **nortasun propioa duen forma juridiko bat izatea, bere administrazio-egituran integratua.**

Alde horretatik, sozietate berriak, orain arte bezala, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzara atxikita jarraituko du, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren barruan.

Segurtasuna

GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DU EUSKO JAURLARITZAK ETA AZTI FUNDAZIOAK ARLO OZEANO-METEOROLOGIKOAN LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEKO

- **Akordioak bi aldeen koordinazioa sakontzen du elementu ozeano-meteorologikoen zaintzarekin, jarraipenarekin, kontrolarekin eta kudeaketarekin erlazionatutako gaietan**
- **AZTIk, itsas ikerketan eta ikerketa ozeanografikoan aditua den zentro teknologikoak, itsasertzaren eta itsas baliabideen zaintzaren esparruan ere lan egiten du**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman du gaur Eusko Jaurlaritzak, Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren bidez, eta AZTI Fundazioak elementu ozeano-meteorologikoen kudeaketan lankidetzaz hitzarmena sinatzeko.

Hitzarmena sinatuta, AZTI Fundazioak LAEMZekin informazioa trukatzeko eta Euskadiko sare ozeano-meteorologikoa behar bezala funtzionatzen eta egoera onean mantentzeko konpromisoa hartzen du. Sare hori osatzen dute hiru plataforma ozeano-meteorologikok, ur sakonetako buia ozeano-meteorologiko batek, tarteko uretako beste batek, kostaldeko radar-sare batek, mareografo-sistemak eta, azkenik, kostaldeko hainbat bideometria-sistemak.

Alde horretatik, bai Eusko Jaurlaritzak bai AZTI Fundazioak hainbat sensorizazio dituzte instalatuta, eta azterlanak eta ikerketak sortu dituzte, bai eta itsasoaren ezagutza eta atmosferarekin eta gizartearekin duen harremana hobetzeko sistemak ere. Adibide ugari daude, hala nola: itsas prozesuak denbora errealean monitorizatzeko hainbat sistemaren inplementazioa eta itsasoaren etorkizuneko portaerari eta horrek gizartearen eta itsas ekonomiaren jarduera-sektore guztietan segurtasunarekin duen erlazioari buruzko aurreikuspenak izateko aukera ematen duten aplikazio numerikoak.

Segurtasun Sailak urtean 195.000 euro bideratuko ditu Hitzarmen horretan aurreikusitako ekintzak gauzatzeko. Bestalde, dirulaguntza nominatibo bera aurreikusitako da 2025eko ekitaldi ekonomikorako.

Segurtasuna

EUSKO JAURLARITZA ETA IBERDROLA ELKARLANEAN ARITUKO DIRA KONPAINIAREN AZPIEGITURA SENTIKORRETAN DRONEAK INHIBITZEKO SISTEMAK INSTALATU ETA KONTROLATZEKO

- **Bildutako informazioa Ertzaintzak koordinatu eta gainbegiratuko du, balizko mehatxuak neutralizatzeko eta euskal multinazionalako pertsonen eta azpiegituren babesa bermatzeko**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran eman du Eusko Jaurlaritzaren eta Iberdrolaren arteko lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzeko oniritzia. Hitzarmenaren helburua da Euskadin energia sortzen eta merkaturatzen duen konpainiaren eraikin edo azpiegitura sentikorretan tripulaziorik ez duten aireontzien hegaldia, asmo txarrez edo zuhurtziaz gabe egiten dena, eragozte.

Hitzarmenaren arabera, Iberdrolaren segurtasun-zerbitzuek droneak detektatzeko jarritako eta operatutako sistemek hartutako datuak Ertzaintzari helaraziko zaizkio. Horrela, Ertzaintzak zuzendu, koordinatu eta gainbegirata, akordio horrek aukera emango du Euskadiko azpiegitura sentikorren eta pertsonen segurtasunerako era horretako mehatxuak neutralizatzeko esku hartzeko.

Hitzarmenaren esparruan, Jarraipen Batzorde Misto bat eratzea ere erabaki da, egindako jardueren koordinazioa, zaintza eta kontrola errazteko.

Ekonomia eta Ogasuna

**EUSKO JAURLARITZAK BESTE URRATS BAT EMAN DU EMAKUMEEEN
ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN ERAGINKORRERANTZ,
KONTRATAZIO PUBLIKOAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA
ERRAZTUZ**

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko, Eusko Jaurlaritzak beste urrats bat eman du. Horretarako, gaur, asteartea, Jaurlaritzaren Kontseiluak jarraibide bat onartu du, EAEko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari dagokionez duela urte batzuk hasitako bidea erraztu eta, ondorioz, indartu nahi duena.

Eskuliburu bat izatera iritsi gabe, jarraibide honek orientabideak eta jarraibideak eskaintzen ditu kasu bakoitzean kontratazio-organismoek eta zuzendaritza sustatzaileek erreferentziako dokumentu bat izan dezaten, txertatze hori ahalbidetzeko. Dokumentu hori ez da berez helburu gisa planteatzen, baizik eta azken helburua lortzeko mekanismo edo bide gisa, hau da, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko mekanismo edo bide gisa.

Jarraibide honetan jasotako orientabideen xedea da martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bateginean kontratazio publikoari buruz xedatutakoa aplikatzea. Eta hori, genero-berdintasuna nazioarteko, Europako eta Estatuko araudietan finkatutako funtsezko printzipioa dela iritzita, non botere publikoek sustatu eta bermatzeko erantzukizuna duten. Estatuan zein autonomia-erkidegoan, kontratazio publikoan berdintasun-klausulak sartzera behartzen duten arau-esparruak ezarri dira, desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeko.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 10 MILIOI EURO BIDERATU DITU HAUR-ESKOLETAKO AZPIEGITURA-GASTUAK FINANTZATZEKO

- **Laguntza hauen onuradun izan daitezke Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur-eskolak dituzten Euskadiko udalak zein Haurreskolak Partzuergoari atxikitakoak**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur-eskolen titular diren udalei eta Haurreskolak Partzuergoari atxikitako udalei dirulaguntzak emateko Agindua. Agindu honek 10 milioi euroko diru-kopurua du, eta aipatutako haur-eskolek azpiegitura-gastuak finantzatzera bideratuko da.

Deialdi honen bidez diruz lagundu daitezkeen azpiegitura-gastuak haur-eskoletan plaza-kopurua handitzearen ondorioz sortuak izan beharko dira, izan haur-eskola horiek udalarenak edo Haurreskolak Partzuergokoak. Zenbait obra mota finantzatu ahal izango dira, hala nola, eskola eraikinetan gela berriak irekitzeko eraberritze edo birgaitze lanak, edo haur-eskola berriak eraikitze obrak.

Espazioak edo eraikinak birgaitzean, eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko Europako gidalerroak hartuko dira kontuan, energia-kontsumo ia nulua duten eraikinak izan daitezken, eta era honetan energia berriztaezinaren kontsumoa nabarmen murrizteko aukera emanez.

Deialdi honen bidez finantzatu daitezkeen jarduerak 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arteko gauzatze-epea izango dute.

Laguntzak banatzeko, honako hauek lehenetsiko dira:

- Ikasleek pobrezia edo gizarte-bazterketako arrisku handiena duten eremuetako jarduerak eta landa-eremuetakoak.
- Plaza kopurua 1 eta 2 urteko adinetarako handitzea.

Deialdi honen zenbateko ekonomikoak Europako *Next Generation EU* funtsetan du jatorria.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK LANKIDETZA-HITZARMENAK BERRITUKO DITU EUROBASQUE ELKARTEAREKIN ETA EHUren UDA IKASTAROEKIN

- Hezkuntza Sailak lankidetzan jarraituko du Uda Ikastaroekin, irakasleentzat prestakuntza ikastaroak antolatzeko eta Zientzia eta Teknologia zabaltzeko jarduerak osatzeko
- Eurobasque Elkartearekin “Francisco Javier de Landaburu” sariak antolatzen jarraituko da Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleentzat

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, argi berdea eman dio Hezkuntza Sailak bi lankidetzeta-hitzarmen berritzeari. Eurobasque-Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluaren Elkartearekin eta UPV/EHUren Udako Ikastaroen Fundazioarekin sinatutako hitzarmenak berrituko dira.

Eurobasquerekiko lankidetzeta-hitzarmena berritzeak aukera emango du Euskadin Europako herri, nazionalitate eta eskualdeen ezagutza bultzatzen eta horretan sakontzen jarraitzeko. Hitzarmen honen helburu nagusia da euskal ikasleei XXI. mendeko gizarte europarraren oinarri diren eta Europaren sorreran eragile izan ziren balioetan eta printzipioetan oinarritutako prestakuntza ematea. Hala nola bakea, giza duintasunaren eta giza eskubideen errespetua, demokrazia, elkartasuna eta lankidetzeta balioak.

Europako nortasuna sustatzea eta euskal gizartea Europaren eraikuntzan gertatzen diren aurrerapenei buruz sentsibilizatzea dira hitzarmen honen helburu nagusiak. Era berean, ikasleak ahaldundu nahi dira, espirtu kritikoa izan dezaten eta europar nortasunaren partaide izan daitezen.

Horretarako, euskal gazteria Europara hurbiltzeko eta nazioarteko ikasketekiko eta atzerriko hizkuntzekiko interesa pizteko, Eurobasquek urtero "Francisco Javier de Landaburu" sarien deialdia egiten jarraituko du, Primus eta Civis kategorietan, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat, hurrenez hurren. Sari horiek antolatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak egiteaz gain, Eurobasquek fitxa didaktikoak ere egingo ditu. Fitxa horien bidez, aipatutako hezkuntza-etapetako irakasleei baliabide didaktikoak emango zaizkie sarietan parte hartzea antolatu ahal izateko, eta Europako hainbat alderdi eta balio landuko dira. Hitzarmen honek 10.000 euroko diru-kopurua du bertan jasotako jarduerak finantzatzeko.

Bestetik, Hezkuntza Sailak **UPV/EHUko Udako Ikastaroen Fundazioarekin duen lankidetzeta-hitzarmena** ere berrituko du. Hitzarmen honen bidez, bi aldeek arteko lankidetzeta-esparrua eta konpromisoak ezartzen dira, Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen jarduera finantzatzeari, antolatzeari, garatzeari eta homologatzeari dagokionez.

Udako Ikastaroen Batzorde Antolatzaileko kide den aldetik, Hezkuntza Sailak – Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordetzaren bidez- edizio bakoitzeko programa orokorra egiten lagunduko du. Bertan, egungo ziklo eta ildoekin batera, Zientzia eta Teknologia sustatu eta gizartean zabaltzeko jarduerak sartuko dira, bat eginez Hezkuntza Sailaren STEAM Euskadi estrategiarekin. Estrategia honen helburuak dira: hezkuntza eta prestakuntza zientifiko-teknikoa sustatzea hezkuntza-etapa guztietan, eremu horrekiko bokazioa eta asmo profesionalak inspiratzea, ikasleen artean neskei arreta berezia eskainiz, eta euskal herritarren artean dibulgazioa eta kultura zientifiko-teknologikoa sustatzea.

Halaber, eta Hezkuntza Sailburuordetzaren bitartez, elkarlanean jardungo da fundazioarekin "Irakasteko Ikasi" programa osatzeko, unibertsitatez kanpoko irakasleentzako etengabeko formakuntzako Prest_Gara Planaren lehentasunezko lerroen baitan. Urte bakoitzean gehienez ere 10 prestakuntza-jarduera garatuko dira. Hala ere, bi aldeek beharrezkotzat jo eta Batzorde Teknikoan adosten badute, salbuespena eginda, zenbateko hori aldatu egin ahal izango da.

Hezkuntza Sailak udako ikastaroen bidez bultzatu nahi du –ezagutzak sakontzera eta zabaltzera bideratutako prestakuntza-jarduera izanik- euskal gizarteak topagune bat izan dezan etengabe aldatzen ari den gizarte baten inguruan eztabaidatzeko eta pentsamendu kritikoa sustatzeko, ikastaro horiek euskal gizartean duten inpaktu sozial eta ekonomikoa aintzat hartuta.

Hezkuntza Sailak UPV/EHUko Udako Ikastaroen Fundazioarekin hasieratik dihardu lankidetzan, 1993tik, antolatutako ikastaroak finantzatzen. Hitzarmen honek 130.000 euroko diru-kopurua du goian aipatutako jarduerak eta ikastaroak antolatzeko.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

BAIMENA EMAN DA EUSKAL TRENBIDE SAREARI GARRAIO-AGINDUA EMATEKO, ABIADURA HANDIKO TRENA BILBORA SARTZEKO KORRIDOREAREN PROIEKTUA ETA OBRAK EGITEKO

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio gaur Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak bere mendeko Euskal Trenbide Sarea (ETS) erakunde publikoari Euskal Autonomia Erkidegoan abiadura handiko sareko Bilbo-Abandoko geltokira sartzeko korridorearen oinarritzko eta eraikuntzako proiektuak idazteko, eta plataformako obrak zuzendu eta egikaritzeko aginduari.

ADIF Alta Velocidad erakundeak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin 6,2 kilometroko luzerako sarbide-tunela eraikitzeke sinatu zuen hitzarmenari jarraitzen dio aginduak, abiadura handiko trenaren Galdakao-Basauri tartea eta Bilboko erdigunea lotzeko, Abandoko geltokian, zabalera estandarrean. Bigarren administrazio-urrats horren bidez zehazten da ETS arduratuko dela proiektuak idazteko eta obrak kontratatu eta egikaritzeko behar diren jarduerak bultzatzeaz, joan den azaroan ADIF Alta Velocidad erakundearekin sinatutako hitzarmenaren arabera.

Aginduaren arabera, gutxienez hiru hilean behin, ETSko arduradun teknikoak lanen bilakaeraren berri emango dio Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari. Eraikuntza-proiektua eta obra bera gainbegiratzea eta onartzea, eta obra bera jasotzea ADIF Alta Velocidad Erakundearen esku geratzen dira. Erakunde hori ere arduratuko da, plataforma jaso ondoren, gainegitura (trenbideak, elektrifikazioa, segurtasun-instalazioak, komunikazioak eta trenbidekoak ez diren segurtasun-instalazioak) jartzeaz.

Ordainketa hiru hilean behin egingo dio ADIF Alta Velocidad erakundeak ETSri, lanak egiten diren heinean. Obra ez da Kupo bidez finantzatuko, Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako adarrean abiadura handiko sarearekin lotuta egindako aurreko lanetan egin zuen bezala. Kalkuluen arabera, proiektuak idazteak 5,2 milioi euroko (BEZa barne) kostua izango du, eta obrak egiteak, berriz, 208,02 milioi eurokoa (BEZa barne). Guztira, 226,52 milioi euro izango dira, eta, besteak beste, ukitutako zerbitzuak birjartzea eta ingurumen-integratioko, segurtasuneko eta osasuneko kostuak barne hartuko dira. ADIF Alta Velocidad erakundearen kargura doan gainegiturak 53,59 milioi euro gehiagoko kostu zenbatetsia izango du.

Osasuna

OSASUN SAILAK SENDAGAIEN HORNIDURARIK EZ DAGOEN EGOERETAN KUDEAKETA HOBETZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA SINATU DU

- **Osakidetzarekin, Euskadiko Farmazialarien Elkargo Ofizialekin eta farmazia-banaketako biltegiekin sinatutako hitzarmen berri horri esker, hornidura-arazoen kudeaketa hobetu ahal izango da, arinago jardun ahal izango da eta pazienteei kalte egitea saihestuko da**

Gobernu Kontseiluari jakinarazi zaio Osasun Sailak, Osakidetzak, Euskadiko Farmazialarien Elkargo Ofizialek eta farmazia-banaketako biltegiek hitzarmena sinatu dutela, sendagaien hornidurarik ez dagoen egoerei buruzko komunikazio-estrategia bat osatze aldera.

Lankidetzeta-hitzarmen horri esker, hornidura-arazoen kudeaketa hobetu ahal izango da, arinago jardun ahal izango da eta pazienteei kalte egitea saihestuko da. Azken batean, Euskadiko farmazia-prestazioa bermatuko da. Horretarako, osasun-sistemako eragile guztiak inplikatzeko dituen jardun-protokoloa zehaztu da.

Helburua da komunikazio-sarea sortzea eta, hala, hornidura-arazoei buruzko informazioa eta kudeaketa hobetzea. Hartara, hornidurarik ezari buruzko informazioa eskuragarri izango da, hartutako neurri arautzaileen berri emango da eta, hala badagokio, hornidura-arazoa amaitzeko aurreikusitako eguna jakinaraziko da.

Inplikaturako eragile bakoitzak bere jardun-eremuan hornidurarik ez dagoela antzematen duenean, Farmazia Zuzendaritzari jakinaraziko dio, eta, horrek, hornidurarik ez dagoen jakinarazpena jaso eta aztertu ondoren:

- Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziari (AEMPS) jakinaraziko dizkio aldeztatik aurretik identifikatu ez diren egoerak, AEMPSren beraren tresna espezifikoen bidez.
- AEMPSi egindako komunikazio bakoitzaren jarraipena egingo du.
- Ekintza arautzaileak zehaztuko ditu, eta interesa duten eragile guztiei jakinaraziko dizkie. Aldi berean, ondorio horretarako sortutako eta eragile guztiek partekatutako biltegi batean erregistratuko ditu, eta, horrela, edozein unetan jakin ahal izango da zein den hornidurarik ez duen edo behar bezala hornituta ez dagoen sendagaiaren egoera.
- Hornidurarik ez dagoen egoera bakoitzaren jarraipena egingo du, Euskadiko pazienteen eskaria bermatuko duen ohiko hornidura berrezarri bitartean.

Informazio hori noiznahi eskuratu eta kontsultatu ahal izango dute eragileek.

Osasuna

OSASUN SAILAK FARMAZIA-PRESTAZIORAKO BESTE ITUN BAT SINATU DU ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALEKIN

- **Itunak sendagaiak, osasun-produktuak eta produktu dietetikoak banatzeko baldintzak finkatzen ditu, eta farmaziak, osasun-agente gisa, Euskadiko Osasun Sistemari duten integrazioa indartzea du helburu**
- **Gobernu Kontseiluak 566,8 M/€-ko gastua onartu du itun berriaren bidez gauzatu den Euskal Autonomia Erkidegoko pazienteen farmazia-prestaziorako**

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio Osasun Sailak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialek farmazia-prestazioaren eta osasun-lankidetzaren arloko beste itun bat sinatzeari.

Itun berriari finkatzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan legez ezarritako farmazia-bulegoak zer baldintzatan arituko diren Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin maila profesionalean elkarlanean, batik bat Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazioan dauden sendagaiak, osasun-produktuak eta produktu dietetikoak banatzeko garaian.

Osasun Sailaren 2021-2024ko Esparru Estrategikoan, sinatzaileek konpromisoa hartzen dute farmazia-bulegoek osasun-agente gisa Euskadiko Osasun Sistemari duten integrazioa finkatzeko eta handitzeko, betiere komunitateari zuzendutako zerbitzugintzaren bidez —sendagaien erabilerari, osasunaren prebentzioari eta sustapenari dagokienez— eta farmazia-arretako programen garapenaren bidez, gainerako asistentzia-mailekin eta gizarte-zerbitzuekin koordinatuta.

Itun honen bidez baimenduko da, era berean, Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko pazienteen farmazia-prestaziorako ordaindu beharreko gastua. Aurrekontua 566,8 milioi eurokoa da, 283,8 M/€-ko zenbatekoa 2023an tramitatu zen, eta 2024rako 283 M/€ geratu dira.

Gotzone Sagardui Osasuneko sailburuak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialetako presidentek eta AFARE-EUSFARE Euskal Autonomia Erkidegoko farmazialarien patronalaren, Gipuzkoako Farmazia Bulegoen Enpresaburuen Elkartearen (AGEOFAR) eta Bizkaiko Farmazia Bulegoen Enpresaburuen Elkartearen (PROFARBI) ordezkariak sinatuko dute 4 urteko iraupena izango duen itun hau. Ituna beste 4 urtez luzatu ahal izango da.

Aurreko ituna 2006koa zen, eta azken urteotan eguneratu eta aldatu egin da, farmazia-prestazioaren arloan gertatu diren aldaketak direla eta. Une honetan, behar-beharrezkoa zen ituna erabat eguneratzea maila funtzionalean, indarrean dagoen araudiaren mailan, kontratu-mailan eta farmazia-prestazioaren mailan.

Aldi horretan, hauek izan dira berrikuntza nagusiak: 2013. urtean Errezeta Elektronikoa ezarri zen; 2018. urtean Estatuko autonomia-erkidegoen arteko elkarrengarritasuna ezarri zen; 2022. urtean Europako

elkarreragingarritasuna; eta 2023ko ekainaz geroztik Euskal Autonomia Erkidegoko farmazia guztietan martxan dago Osasun Txartel digitala.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK EUSKAL FAMILIENTZAKO LAGUNTZA NAGUSIAK ARAUTZEN DITUZTEN AGINDUAK AKTIBATU DITU

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ditu kontziliaziorako laguntzak eta seme-alabak hazi eta mantentzeko laguntzak arautzen dituzten aginduak. Nerea Melgosa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak eskatuta egin du.

Familia eta lana kontziliatzeko laguntzen hartzaileak hauek dira:

- Lanerako eszedentzian dauden langileak, urtebetetik beherako adingabea jaiotzeagatik eta zaintzeagatik ordaindu beharreko prestazioak parekatzeko.
- 3 urtetik beherakoak zaintzeko lan-eszedentzian edo 12 urtetik beherakoak zaintzeko lanaldi-murrizketarekin dauden langileak.
- Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileak.
- Eta 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeagatik laguntza eskatzen duten familiak.

Kontziliazio laguntza horiek eskubide subjektiboak dira, eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, 2024an, 27,89 milioi euro erabiliko ditu eskaerei erantzuteko.

Zehazki, banaketa honela izango da:

- Adingabeak zaintzeko eszedentzia eta lanaldi murrizketa: 26.124.000 euro.
- Laguntza behar duten senitartekoak edo osasun egoera larrian daudenak zaintzeko eszedentzia eta lanaldi murrizketa: 1.325.000 euro.
- Baimenak berdintzeko eszedentziarako laguntza (guraso bakarreko familiak): 390.000 euro.
- Seme-alabak zaintzeko kontrataziorako laguntza: 2.000.000 euro.

2023an:

- 13.150 pertsonak jaso zituzten lanaldia murrizteko edo eszedentzia hartzeko laguntzak. Jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 1.144 eurokoa izan zen 22,5 milioi euro bideratuz.
- 200 pertsonak jaso zituzten laguntza behar duten edo egoera larrian dauden senitartekoak zaintzeko laguntzak, eta, batez beste, 1.248 euroko laguntza jaso zuten. Guztira, 400.000 euro baino gehiago bideratu ziren.
- Baimenak parekatzeko laguntzari dagokionez, 43 pertsona onuradun izan ziren, guraso bakarreko familientzat soilik, eta, batez beste, 4.590

euroko laguntza jaso zuten; guztira, 200.000 euro baino zertxobait gutxiago bideratu ziren.

- Seme-alabak zaintzeko pertsonak kontratatzeko, Euskadiko 834 familiak 911 euroko laguntza jaso zuten batez beste, hau da, milioi bat euro baino gehiago inbertsioan.

Gainera, gogoratu behar da 2024an Melgosak zuzentzen duen sailak laguntza-dekretu berri bat garatzea aurreikusi duela, jaiotzagatiko eta adingabeak zaintzeagatiko prestazioa 18 astera luzatzeko. Horretarako 100.000 euroko partida bat gorde du.

Hazkuntzarako laguntzak

Bestalde, Jaurlaritzaren Kontseiluak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak sustatutako eta orain urtebete indarrean jarritako seme-alabak hazteko eta mantentzeko hileko laguntzak arautzen dituen agindua ere gaitu du.

Hilean 200 euro ordainduko zaizkie adingabea jaiotzen denetik hiru urte bete arte. Eta hilean 100 euroekin luzatuko da adingabeak zazpi urte bete arte hirugarren seme-alaben eta ondorengoen kasuan (familia ugariak). Gainera, laguntza sortzen duen seme-alabak % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendetasun-egoera aitortuta badu, aurreikusitako laguntzak bikoiztu egingo dira.

Azpimarratu behar da, hileko laguntza jasotzeaz gain, erditze anizkoitzek eta adopzio anitzek aparteko laguntza jaso ahal izango dutela. Ordainketa bakarreko laguntza da. Laguntzaren zenbatekoa erditze edo adopzio multipleko seme-alaba kopuruaren eta familiaren errenta estandarizatuaren arabera finkatuko da.

Guztira, familia-politiken arduraren sailak 127,7 milioi euroko aurrekontua du laguntza horiei aurre egiteko.

57.000 eskaera baino gehiago onartu dira. Zehazki, 65.000 eskaeratik 57.069. Emandako laguntzen tipologiari dagokionez, %84,51 0tik 3 urtera bitarteko seme-alabak dituzten familientzako laguntzak dira.

%14,79, 3 eta 7 urte bitarteko hirugarren edo hurrengo seme-alabentzat, 9.614 guztira.

456,% 0,70, ezgaitasuna duten hurrei; 680 espediente, berriz, erditze anitzei dagozkie.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 2,2 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN KIROL PROGRAMAK FINANTZATZERA

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du euskal kirol-federazioetako kirol programak finantzatzeko urteroko dirulaguntza deialdia. Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 2,2 milioi bideratzen ditu federazioen kirol programak finantzatzera.

Eskariak aurkezteko epea hilabetekoa izango da agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian kaleratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskatzaileek kirol-proiektuen azalpen memoria bat aurkeztu beharko dute eta balorazioa egiterakoan kontutan hartuko da besteak beste, euskararen erabilera maila, emakumeen parte hartzea sustatzeko eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko ekimenak edota autofinantzaketa maila.

2023ko deialdian 44 federaziok jaso zuten beraien kirol programa garatzeko dirulaguntza.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 500.000 EUROKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA ONARTU DU KULTURA ETA GIZARTE ARLOETAKO BITARTEKOTZA ETA BERRIKUNTZA PROIEKTUETARAKO

Gobernu Kontseiluak bere gaurko bileran “Bitartez” deituriko deialdia onartu du. Bitartekaritza eta sare-lanaren bidez ikerketa, berrikuntza eta arte garaikidearekin konprometitu dauden kultura eta gizarte arloko bitartekaritza eta berrikuntza proiektuei bideratutako dirulaguntzak dira onartutakoak. Guztira 500.000 euroko diru partida bideratuko da deialdi honetara beti ere desberdinen arteko lankidetzeta eta talentua eta sormen gaitasuna ahal den gehien garatzeko asmoz.

Diru lagunduko diren proiektuak honetarako lagungarri izan beharko dute:

- Sektore, arlo eta eragile desberdinen arteko baterako sorkuntza nahiz hibridazioa eta talentua sustatzeko, hartara gure inguruko sortze-gaitasuna ahal beste garatzea.
- Lan-inguruak eta plataforma teknologikoak erabiltzea elkarlan-moduak, ikerketa eta ekoizpena areagotzeko.
- Hainbat hartzaile eta ikus-entzulerengana jotzeko moduko harreman- eta artekaritza-modu berriak sortzea, hartara bizipen esanguratsu, bereizgarri eta kualitatiboagoak eragitea.
- Praktika kulturaletatik abiatuta berrikuntza kultural eta sozialeko estrategiak planteatzen dituzten ekimenak garatzea.

Dirulaguntza jasotzeko proiektuak 2024an hasi eta 2024ko abenduaren 31ra bitartean gauzatutakoak izan beharko dute. Honez gain, kultura-sektore bati lotuak izan beharko dute (ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, literatura edo musika). Bestalde, proiektu bakoitzak gehienez 35.000 euro jasoko ditu, beti ere proiektuaren aurrekontuaren %70 ez badu gainditzen.

2023ko deialdian 20 elkarte eta kooperatibak jaso zituzten laguntzak.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK KULTURA ARLOKO PUBLIKO DESBERDINAK SUSTATZEKO 200.000 EUROKO DEIALDIA ONARTU DU

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 200.000 euro bideratuko ditu 2024. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan kulturako publikoak garatzeko proiektu eta jarduera bereziak eta berariazkoak gauzatzeko. Gobernu Kontseiluak gaur onartu duen deialdiarekin publikoak dibersifikatzeko eta zabaltzeko helburua du, baita parte-hartze kulturala hobetzea ere.

Diruz lagunduko diren proiektuak jarduera bereziak eta espezifikoak izan beharko dira eta kulturarako sarbidea galarazten edo mugatzen duten oztopoak gainditzeko, publikoekiko harreman-eredu berriak eratzeko, sorkuntza eta kultura-publikoen arteko elkarrekintzaren garrantzia nabarmentzeko edota kultura-publikoek egiten duten praktika aktiboaren garrantzia nabarmentzeko helburua dutenak. Honako hauek izango dira diruz lagunduko diren proiektu eta jarduera motak:

- **Publikoak dibersifikatzekoak:** interesik gabeko publikoengana bideratutakoak dira, eta hezkuntza-trabak, psikologia-trabak eta gizarte-inguruko trabak ezabatzerantz bideratutakoak.
- **Publikoak hedatzekoak:** kulturaren interesa izanda ere, kultu- jardueretan parte hartzen ez duten publikoei zuzendutako proiektuak edota jarduerak, kultura-jardueretara erakartzeko eta haietarako sarbidea errazteko esku-hartzeak behar dituztenak.
- **Parte hartzea areagotzekoak:** Kultur jardueretan parte hartzen duten publikoak gero eta fidelagoak izan daitezen, partaidetza-maila eta inplikazio-maila handiago lortzera bideratutako proiektu eta jarduerak.

Diruz lagunduko diren proiektu edo jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren garatu beharko dira, 2024ko urtarrilaren 1etik 2025o azaroaren 30era bitartean eta hasi, 2024an hasitakoak izan beharko dute. Iazko deialdiari esker 9 proiektu diruz lagundu ziren.

Seguridad

EL CONSEJO DE GOBIERNO AUTORIZA LA CREACIÓN DE *EUSKALMET - AGENCIA VASCA DE METEOROLOGÍA, S.A.*

- El cambio de forma jurídica no afecta a sus funciones o personal ya que la totalidad de la actual plantilla pasará a integrarse dentro de la nueva sociedad anónima pública que dirigirá, también, el actual Jefe del Servicio de Meteorología del Gobierno Vasco, Jose Antonio Aranda
- Euskalmet S.A. pasará a ser medio propio personificado de la administración vasca lo que permitirá afrontar con garantías los retos futuros derivados de la meteorología adversa y el cambio climático

El Consejo de Gobierno ha aprobado el decreto de creación de Euskalmet - Agencia Vasca de Meteorología, S.A. Igualmente, tal y como establece la normativa de creación de entidades del sector público vasco, hoy se ha dado luz verde a sus estatutos sociales, disposiciones aplicables a la nueva entidad, plan de actuación inicial, etc. Además, a partir de ahora, Euskalmet S.A. pasará a ser una sociedad anónima pública que tendrá la condición de “medio propio personificado” de las entidades integrantes del sector público.

El cambio de forma jurídica de Euskalmet **no afecta a sus funciones o personal** ya que la totalidad de la actual plantilla pasará a integrarse dentro de la nueva sociedad anónima pública que dirigirá, también, el actual Jefe del Servicio de Meteorología del Gobierno Vasco, **Jose Antonio Aranda**.

Constitución, 25 de marzo de 2024

Según lo establecido en el Proyecto de Estatutos y en el Proyecto de Decreto de constitución de Euskalmet S.A. este nuevo ente contará con una **Dirección General** (actual Jefe del Servicio de Meteorología del Gobierno Vasco, Jose Antonio Aranda), una **Junta General de Accionistas** (Socio único: Consejo de Gobierno), un **Consejo de Administración** (8 integrantes) y un **Comité Consultivo** (9 personas).

El Consejo de Administración es el órgano colegiado superior de gobierno de la Sociedad. su reunión **constitutiva será el lunes 25 de marzo**, y estará integrado por:

1. El presidente o la presidenta, cargo que corresponderá al Consejero o Consejera de Seguridad del Gobierno Vasco, que tendrá **voto de calidad**.
2. El vicepresidente o la vicepresidenta, cargo que corresponderá al Viceconsejero o Viceconsejera de Seguridad del Gobierno Vasco.
3. Consejero o Consejera del Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de sostenibilidad ambiental.
4. Director o Directora de la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco.

5. Director o Directora de Patrimonio y Contratación del Departamento de Economía y Hacienda.
6. Director o Directora General del ente público de derecho privado Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca (EITB).
7. Un secretario o una secretaria, con voz, pero sin voto, que será designado o designada por el Consejo de Administración de la Sociedad.
8. La persona que ostente la Dirección de la sociedad asistirá a las reuniones del Consejo de Administración en calidad de observadora, por sí misma o representada, y con voz, pero sin voto.

Del **Comité Consultivo** formarán parte:

- Tres vocalías provenientes de cada uno de los departamentos con funciones en materia de protección civil de las Diputaciones Forales de Araba-Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.
- El Director o Directora de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco.
